

txoritxoari mokoka

Maratoilari sasoia

Espainiako Telebista Akademiaren gau handia izan zen ostiralean, saiorik eta profesionalik onenak saritu baitzituzten TVE1ek eskainitako jaialdi batean. Sari banaketako hiru aurkezle nagusien artean Ana Garcia Obregon eta Ramon Garcia egoteak eman diezaguke gauaren handitasunaren neurri bat. TVEren *arrakasta* ere, kontuan izatekoa da: batetik, bere bi kateetako programazioaren aipamenak eta laudorioak etengabeak izan ziren jaialdiko gidoian; eta, bestetik, jokoan zeuden 21 sa-



PACO TORRENTE / EFE

Narciso Ibañez Serrador, ostiralean, Espainiako Telebista Akademiaren ohorezko saria jasotzen.

Amagoia Iban

rietatik 13 TVEko saioek jaso zituzten. Tele 5ek eta Antena 3k, berriz, bina sari jaso zituzten. Canal Plusek, bestetik, sari bakarra jaso zuen. Akademiako bozemaileen artean TVEko kideak gehiago izateak badu, noski, zerikusirik horrekin. Nola ulertu behar dugu, bestela, *Al filo de lo imposible* saioa programa dibulгатiborik onena izendatzea? Eta nola diseinu onenaren sarirako hautagai guztiak TVEkoak izatea? Bagenekien halako galak jasateko urdail gogorra behar dela. Gero eta luzeagoak diren jaialdi horiekin teleikusleoi gainera eskatzen zai-gun maratoilari sasoi puntua, ordea, ez dugu oraindik eskuratu. Ezta nahi ere.

LABURAEAN

Aunak bost kable operadoreak talde berean bilduko ditu

Auna telekomunikazio taldearen bost kable operadoreak gune bakarrean bilduko dira bihar. 90 telebista kanal eskainiko dituzte horrela honako kable operadoreek: Aragoiko Able, Kanarietako Canarias Telecom, Madrilgo Madritel, Kataluniako Menta eta Andaluziako Supercable. Erabakiarekin, 340.000 bezerotik 500.000ra pasatzeko helburua du Aunacablek. Urtea 260 milioi eurotako fakturazioarekin amaitzea espero dute.

Maiatzeko Plazako Amen 25. urteurrena Radio Euskadiko 'El Altavoz' irratsaioan

Argentinara joko du gaur arratsaldean Xabier Lapitzek aurkeztzen duen *El Altavoz* irratsaioak (18:00etatik aurrera). Gaur betetzen dira 25 urte Maiatzeko Plazako Amak taldea sortu zela eta elkarteko presidente Hebe de Bonafini elkarrizketatuko dute. Euskal Herrian bizi den Javier Villaroel kazetari argentinararekin ere hitz egingo dute saioan zehar.

Latinoamerikako herriek ez dituzte jarraituko Europako Batasuneko arauak, lurreko telebista digitalari dagokionean

Europako Batasuneko eta Latinoamerikako ordezkariak Sevillan bildu dira egunotan teknologia berrien arauak eztabaidatzeko. Eta atzo Espainiako Anna Birules ministroak adierazi zuenez, Latinoamerikako herriek ezezkola eman diote lurreko telebista digitalean EBko arauak betetzeari. Hala ere, teknologia berrien garapenaz eztabaidatzeko bilera gehiago egingo dituztela iragarri dute.

ETB. 'Azken artzaina' dokumentala egiten ari da Iñaki Bizkarra



ETB

Iñaki Bizkarra kazetaria eta Dionisio Txoperena artzaia solasean, 'Azken artzaina' dokumentaleko grabaketaren irudi batean.

Ameriketako ametsa

Artzaintzaren desagertzea eta Dionisio Txoperenari buruzko lana emango dute aurki

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Iñaki Bizkarra kazetaria dokumental zabal bat ari da prestatzen Euskal Telebistarako, Dionisio Txoperena artzain goizuetarra eta AEBetako euskal artzaintzaren desagertzearen inguruan. Lanak *Azken artzaia* izena du eta ETBk ez du emisio datarik iragarri. Ordubeteko iraupena du eta bi kateetan eskainiko dute.

Txoperena eta bere familiaren bizitza kontatu nahi izan du Bizkarrak dokumentalean. Dionisio 1974an joan zen Ameriketara bere bost anaiekin batera.

Urteotan artzaintzan ibili da lanean, egun batean AT&T telefono konpainiaren deia jaso zuen arte. Enpresa horretako iragarki batzuetan azaldu da Txoperena eta famatua bihurtu da AEBetan. Komunikabideetan oihartzun handia izan du Txoperenak, eta jende asko interesatu da haren artzain ogibideaz.

AEBetako artzain kopuruaren urritzea

Dena dela, dokumentalak Ameriketako artzaintzaren egoeran sakontzen du. Beste garai batean ez bezala, egun arrantxo-ja-

beak ezin dira Zeelanda Berriko edo Australiako prezioekin lehiatu eta krisialdian sartuta daude. Duela hamarkada batzuk milaka ziren Idahotik Kaliforniara bitartean zeuden artzaiak, baina egun oso-oso gutxi dira.

Dokumentala San Frantziskotik iparraldera dauden Tomales eta Dillon Beach herrietan dago grabatua, Point Reyes penintsulan. Bertan bizi da Dionisio Txoperena, *old-timer cowboys* izenekoekin (idizain beterranoak). Dionisio Euskal Herri- itzultzean, familiarekin nola elkartzen den ere jasotzen da Bizkarraren lanean. Bi kulturetako ohiturak jasotzen dira eta Goizuetako artzainaren ama eta emaztearen testigantzak ere bildu ditu dokumentalgileak.

ETB2



EGUNKARIA

Arnaldo Otegi.

Arnaldo Otegi elkarrizketatuko dute gaur goizean 'El punto...' saioan

Erredakzioa | DONOSTIA

Euskal Telebistako bigarren kateko *El punto...* saioak Arnaldo Otegi Batasuna alderdiko bozeramailea eramango du platora, gaur goizeko 09:30ean. Batasuneko eleduna euskal politikaren eremuan izandako azken gertakariaren gainean mintzatuko da, baita bere alderdia legez kanpo uzteko saiakeraz eta atzo burutu ziren atxiloteketez ere.

Mariano Raxoi T5eko 'La mirada crítica'-n

Arnaldo Otegik ETB2 katean hitz egingo duen ordu berean, T5 kate pribatuan Espainiako Barne ministro Mariano Raxoi elkarrizketatuko dute. *La mirada crítica* saioan gonbidatuko dute Raxoi eta Montserrat Dominguezek egingo dizkio galderak. Raxoik Batasunaren legez kanpo uzteko nondik norakoez eta azken atxiloteketez hitz egingo du.